

Denboraren makina
QWERTY,
aurreneko
idazmakinak

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Thesi
Urrizate
harana
(Nafarroa)

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Gorka Arrese bazka.info-ren inguruan



Literaturaren bideak ugariak dira, paperezkoak gehienak: liburuak, aldizkariak... Gero eta ugariagoak dira, ordea, bide elektronikoak. *Bazka* aldizkaria, esate baterako. Paperean sortua 1999an, bigarren zenbakirako desagertu zen, banaketa arazoak medio. Aurten ikusi du berriro argia, pantailakoa alegia, orain aldizkari elektronikoa baita: literaturaren inguruko artikulua, esanak eta datuak aurki daitezke www.bazka.info helbidean. "Informaziorako, azterketarako eta gogoetarako sortu dugu", azaldu digu Gorka Arresek, *Bazkako* zuzendariak. Helburua, azpitu-tuluan: "literaturaren soziologia baterako".

ION OLANO

Argazkiak: Dani Blanco

«*Bazkan* arrazoiak erakutsiko ditugu inpartzialak ez izateko»

Azterketa landuak, taulak, datu argigarriak... Iritziak baino indar handiagoa al dute zenbakiek?

Handiagoa ez, ezberdina bai. Beharbada ez dugu ohiturarik datuak batzeko eta sailkatzeko, eta agian horrek eman dizu atentzioa. Bildu ditugun datu batzuk argigarriak direla esan didazu. Baliagarriak izan bazaizkizu primeran, poz hartuko bainuke datu horietatik iritziak antolatu eta sortu eta argitaratuko bazenitu, zeuk edo beste edonork. Artikulu on bat idaztearen aldean erraza da datuak biltzea eta ordenatzea.

Artikuluak ere badituzue *Itsasoa Ontzian* atalean. Nork osatzen du *Bazka*? Nola funtzionatzen du?

Xabi Borda, Oier Guillan, Koldo Izagirre eta Josu Landak laguntzen didate. Denok baditugu beste hainbat kontu eta lan. Laguntza gehiago beharko dut.

Nola landuko duzue literaturaren soziologia?

Gure iritziak arrazoietatik atera nahi ditugu, eta ez gure iritzien araberako arrazoiak. Literaturaren edizioa, idazletza, jabego intelektuala, eskubideak, banaketa, dendak eta azokak eta salmentak, promozioa eta publizitatea, generoak, kritikak, sariak, elkarteak eta abar, halakoez arduratuko gara. *Bazkan* arrazoiak erakutsiko ditugu inpartzialak ez izateko.

Gai polemikoak lantzen dituzue. Eztabaida al da helburuetako bat?

Bai zera! Niri ez zaizkit polemikoak iruditzen. Informazioa, azterketa eta gogoeta dira *Bazkan*aren helburuak, baina ez eztabaidak. Eztabaidak izan litezke interesgarriak ongi dokumentatuak eta antolatuak direnean, baina gehienak liskar modukoak bihurtzen dira: hartzitu egiten da bat, bestea atsekabatu, beste batek ziri edo trufarako joera hartzen du deus ez esateko, eta akabo... norgehiagoka deportibo bat bihurtzen da. Uste dut, polemika helburu duenak espektakulua eskaintzen duela sarritan, eta, berdin, espektakulua eskaini nahi dutenak polemikak piz-

ten ahalegintzen direla. Eta horretan asko laguntzen du gaur egungo prentsa ereduak.

Baduzue hiztegi berezi bat.

Egunkari eta aldizkarietatik ateratako hitzen bilduma egiten dugu: sariez, errealismoaz eta fikzioaz, literaturak sortzen omen duen interes eskasaz, literatura azkena jotzeko zorian ote den, errekonozimenduz eta famaz eta prestigioaz, gure sistema literarioa ez-sanoa ote den, debate premiaz, idazle kanonizatua izateko patroiaz, itzulpengintzaz, kritikaz, haur eta gazte literaturaz, irakurleez, merkatuaz...



Eta azkenik, *Bazkako* atalik "soziologikoa": *Datutegia*.

Datu gutxi baliatu eta eman ohi dugu hitz egiteko eta idazteko orduan. Bati entzungo diozu: "liburu gehiegi argitaratzen dituzte"; beste bati: "poesia gutxi argitaratzen da". Zer datu-ekin esaten ote dira halakoak? Datuak biltzen saiatuko gara, geure burua hobeto ezagutzeko, informatzeko, gauzak alderatzeko, okerrak zuzendu ahal izateko, agerikoa ez dena (edo ez dirudiena) azaltzeko.

Nondik heldu da *Bazka* berpizteko gogoa?

Joan den urtean abiatu nahi nuen, baina ez nuen beta hartu. Orain *Bazka* berria martxan jarri dudalarik, batzuek aitatu didate maizago berri eta elikatu beharko genukeela. Lehen ez zen erraza, eta orain ere ez.

Izena mantendu du paperetik sarera. Baina zertan aldatu da?

Paperezko *Bazkak* bi ale izan zituen, 1999an eta 2000n; arteaz eta musikaz eta hedabideez ere jardun zuen. Izipiritua ez da aldatu. Formatua aldatu da. Eta gaien aldetik, literaturan eta idazletzan eta edizioan zentratu da orain.

Susa-ko editore zaren aldetik, nabarmentzekoa da argitaletxeak Interneten alde egindako apustua. Sarea al da, gaur egun, literatura sozializatzeko tresnarik egokiena?

Literatura sozializatzea zehazki zeri deitzen diozun ez dakit. Baina literatura editatzeko eta irakurtzeko liburua baino egokiagorik ez dut ezagutzen. Sarean baino nahia-go nuke *Bazka* paperezko aldizkari gisa argitaratu —eta aldi berean Interneten ere bai, zergatik ez—, baina garesti ateratzen da inprimatu, banatu eta salmentan jartzea; eta paperezko aldizkariak maiztasun finko samar bat ere behar izaten dute... Internet merkea da, nolabait esateko.

Sariak aipatzen dira sarri *Bazkan*. Idazleen profesionalizazioa laguntzen dute, ala oztopatzen?

Sariak, era guztietakoak, ez dira sarituentzat izaten baizik eta sariaren antolatzaileak bere burua loriatzeko, apaintzeko, promozionatzeko, goresteko... Sari baten antolakuntzan xahutzen diren diru eta ahaleginak antolatzailearengana itzultzeko izaten dira. Sarituari apurra ematen zaizkio, sarituak ospe eta aintza

Bazkan argitaratutakoen pasarte batzuk

"Nik aberasgarria eta are funtsezkoa deritzodan gogoeta bati hasiera emateko sinatu dut *Utikan* manifestua. Eta horregatik idazten ditut, halaber, aldizkari honetako lerro hauek: aldarrikapenak jarraipen bat izan dezan, ez dadin gelditu egun bateko edo biko eztabaidan harrapatuta, salaketa ez dadin izoztu..." **Oier Guillan**, *Hautsi baten parte* artikuluan.

"Ez nuke etorkizunean zerbait lortzeko lanaz gaindiko merituen bila ibili nahi. Inoiz inon saritzen banaute, izan dadila testuak merezi duelako. Eta ez beste zerbaiten kariaz. Ez dut zuriaren edo beltzen menpeko pieza huts izan nahi, dama edo dorre bihurtzeko taularen beste muturreraino korrika doan peoi". **Xabi Borda**, *Peoi bat tablero zuri-beltzean* artikuluan.

"Orain osterira irakurleek agerkari honetan dituzte Euskadi Sarietako datu batzuk behintzat. Ezein kazetarik egin ez duena egin du *Bazkan*. Honez gero, irakurleen txanda da. Ea nork dituen patrimonializaturik sariok eta, bide batez, Euskal Literaturaren Sistemaren adarretako bat.

Egia baldin bada Euskadi Sari hauei utikan! esatean Euskal Literaturari kalte egiten diogula, eskubide osoa dut esateko sariok patrimonializaturik dutenek Euskal Literatura bera daukatela patrimonializaturik. Ez naiz horren erradikala, osterira. Euskal Literatura ez dira Euskadi Sariak". **Edorta Jimenez**, *Off the record* artikuluan.

the dubliners Bilbo Hiria irratia

BI-96.0-FM Bilbo Hiria irratia

10 urte, 11 amets!!

kafe antzokia

MAIATZAK 23 ASTEAZKENA / 21:00

AURRESALMENTA: 20€ / TXARTELDAGIAN: 22€ / ZENBAT GARAFEN LAGUNAK 11€

Laguntzaileak

www.bilbohiria.com

ematen dizkio antolatzaileari, eta hurren arte.

Erdal idazle bati irakurri nion: “sariak beharrezkoak dira, erregeak bezala; burua lehen-lehenik nori moztu behar zaion jakiteko dira sariak eta erregeak”. Ateraldi bat zen, bai, ohartarazi zidana erregeek badutela ohitura –dikadore batzuek ere bai– sariak emateko. Esaldi estrabagante hark, ordea, horixe bakarrik baino adiera ezberdin gehiago dauzka.

Jon Alonsoren artikuluak eztanda eragin zuen gure literaturako mundutxoan. Haren ondotik etorri zen Utikan manifestua, eta segidan Bazka. Eztandaren uhinak ote?

Alonsoren artikuluak eztanda eragin zuela larregikeria da. Artikulu on bat da, bakan argitaratzen diren horietakoa. Garai baten erretratua egiten du, gertatutako batzuen kronika ere bai (lekukoek ez dute txintik atera), sarien egokitasunaz idazleek beti izan dituzten sentipenak jasotzen ditu, anekdota biziak dakartza... baina funtsean literaturaz eta idazlearen ofizioaz ari da, eta horri ez zaio arretarik jarri.

Utikan manifestua dela-eta, gauza bera gertatu dela uste dut, funtsezkoari ordez arreta jarri zaiola ondorioari.

Eta, Euskadi Sariak, ez al dira literatur sistemaren egoeraren adibide soil bat?

“Literatur sistema” terminoa aipatzea modan jarri da. Unibertsitarioek ekarriko zuten hedabideetara. Irudipena daukat huts samar iritsi zaigula terminoa. Nolanahi dela, sistema deitzen den hori ekonomikoki aztertu eta deskribatua izatea ondo etorriko litzaiguke: idazleen ogibideak, liburuen argitalpen kostuak, editorialen egiturak, distribuzio eta salmentak, liburuen diruak nola banatzen diren, ze mugimendu ekonomiko daukan euskal literaturak... eta horren ostean gainerako sistema-kontuak ziur aski egokiago begiratu ahal izango dituzue.

Eta sariak, tira, beste maila bateko kontuak dira.



batzordean berriz, bat ere ez. Ba al dago arrazoi soziologikorik?

Emakumezko eta/edo gizonezko, horri erreparatzeko joera bizkortu da baita ere, arrazoi duzu. Duela urte batzuk esango zuketena: “*Bazkan* gipuzkoarrak zarete denak”. Hurrena beste bat harrituko da honela: “Kontseilu editorialean ez dago funtzionaria den inor” edo “irakaslerik edo/eta kazetaririk ez dago”.

Gure artean dendaririk ere ez dago, gure titulazio akademikoa ez da itsugarritzkoa, batez besteko adina 40 urte ingurukoa aterako zaizu... zaharregiak gara gazteentzat.

Asko idazten da literaturaren inguruan. Baina, literaturaz?

Asko ez, literaturaren ingurukoez gutxi idazten da, eta literaturaz askoz gutxiago. Orrialde promozionalak dira nagusi. ■

“Literaturaren ingurukoez gutxi idazten da, eta literaturaz askoz gutxiago. Orrialde promozionalak dira nagusi”